

# ALOKUTIBOTASUNARI BURUZKO ZENBAIT HAUSNARKETA HIZKUNTZALARITZA OROKORRAREN IKUSPEGITIK

Juan Carlos Moreno Cabrera  
Universidad Autónoma de Madrid

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Hizkuntz tipologia eta unibertsalei buruzko ikerketak hizkuntzalaritza orokorren eginbehar oinarritzkoen artean daude (Eguzkitza & Etxebarria 2004). Hizkuntz aniztasuna ikertu gabe ezin da benetako hizkuntzalaritza orokorrik egin. Horregatik, hizkuntza ez-indoeuroparrak oso garrantzitsuak dira hizkuntz tipologiazko ikerkuntzetan, hauek barik emaitzak nahitaez alderdikorrak izango baitira.

Hizkuntz tipologiaren ikuspegitik, euskarak ezaugarri interesgarri asko ditu, eta haien artean, dudarik gabe, adizki alokutiboek leku garrantzitsua hartzen dute. Hala eta guztiz ere, G. Brettschneider-ek, adibidez, ez ditu aipatzen bere euskararen deskribapen tipologiko laburretan (1979, 1981). Hizkuntzalari germaniarraren artikuluak bezala, lan hau hizkuntzalaritza orokorren ikuspuntutik egina dago, eta euskararen deskribapen tipologikoa osatzeko ezaugarri hau aztertu behar dugula uste dut. Horregatik, adizki alokutiboen analisisiaz arituko naiz lan honetan.

Alokutibotasunak hizkuntz sistemaren mailen arteko elkarreragina erakusten du. Hizkuntzaren atal guztiak batera gertatzen dira fenomeno gramatikal honetan. Alokutibotasuna egokiro karakterizatze eta deskribatzeko ezaugarri pragmatiko, semantiko, sintaktiko, morfologiko eta fonikoak hartu behar ditugu kontuan. Puntu hau argitzeko ikus ditzagun mailaz maila alokutibotasunaren ezaugarri bereizgarrienak:

- Maila pragmatikoa: hiztunaren eta solaskidearen arteko harremanak adierazten dira adizki alokutiboen bidez.
- Maila semantikoa: adizki alokutiboek solaskidearen sexua adierazten dute, *-k* eta *-n* atzizkiak direla medio.
- Maila sintaktikoa: alokutibotasuna aditz komunztaduraren bitartez adierazten da. Honez gainera, adizkera alokutiboek boz gramatikal eta diatesiaren arteko desberdintasuna erakusten dute (Moreno Cabrera 1998). Bestalde, badaude alokutibotasunean murrizketa sintaktikoak; adizki alokutiboak ezin dira galde-eta mendeko perpausetan agertu (Euskaltzaindia 1999: 7).

---

<sup>1</sup> Mila esker Karlos Cid Abasolori euskal testua jorratzeagatik.

- Maila morfologikoa: alokutibotasuna aditzaren bitartez adierazten da. Adizki alokutiboek forma bereziak dituzte. Adibidez, adizki alokutiboak eta NORI-dunak desberdinak dira.
- Maila fonetikoa: aldaketa fonetiko bereziak ikusten dira adizki alokutiboetan. Esate baterako, orainaldiko adizkietan hasierako *d*- morfema *z*- bihurtzen da. Gainera, atal honetan, bustidura adierazgarria dugu (Lafon 1959: 116, Oñederra 1990); adibidez, xukako adizkietan (*gizona joan duxu*): "...baxenafarre-raz, *zu* alokutiboari balio afektibo berezia emanaz *xu* forma eman zaio." (Euskaltzaindia 1987: 388).

Artikulu honetan, ez ditut ezaugarri guztiak aipatuko, alokutibotasunak inplikazio ugari baititu, ikusi dugunez, euskal gramatikarentzat eta hizkuntzalaritza orokorrarentzat. Hurrengo orrialdeetan, komunztadura, boz gramatikala eta solaskidearen rol pragmatikoa aztertuko ditut alokutibotasunaren ikuspegitik.

## 2. Aditz komunztadura eta argumentuak euskaraz, ikuspuntu tipologikotik

Euskal aditzak lau komunztadura eredu ditu: Nor, Nor-Nori, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork:

- |                           |                             |
|---------------------------|-----------------------------|
| (1) Komunztadura euskaraz |                             |
| a. Nor: etorri da         | c. Nor-Nork: eman dut       |
| b. Nor-Nori: etorri zaio  | d. Nor-Nori-Nork: eman diot |

Oso inportantea da konturatzea adizki hauek erreferentzia pertsonal argumentalak dituztela. Horregatik, *etorri da*, *etorri zaio*, *eman dut* eta *eman diot* perpaus osoak izan daitezke. Brettschneider-ek dioen bezala:

Evidentemente, en muchas ocasiones no es necesario mencionar explícitamente a los participantes de la acción por medio de constituyentes básicos de la oración, porque ya están codificados en la forma verbal. Por eso, parece lógico que la estructura básica de la oración euskárica contiene únicamente el complejo verbal como constituyente constitutivo (obligatorio); todos los demás constituyentes son opcionales. (Brettschneider 1981: 226).

Puntu hau erakusteko, Brettschneider-ek adibide hau eskaintzen digu:

- (2) (zuek) (guri) (liburuak) eman zenezazkiguketean

Brettschneider-ek dioenez, *eman zenezazkiguketean* perpaus osoa da; izenordeak eta izena hautazkoak dira. Beraz, hizkuntzalari honen ustez, euskararen perpaus-egitura honela adieraz daiteke:

- (3) (( ) ... ( ) ADITZ KONPLEXUA ( ) ... ( ) )<sub>p</sub>

Brettschneider-en arabera, egoera hau beste hizkuntza batzuetan ere ikus daiteke. Autore honek maya quichezko perpaus bat aipatzen du (Brettschneider 1981: 225):

- (4) Maya Quiché  
 Manuel kebuluk'am lok ri shila chke pa ri ha  
 Manuel ekarri hona aulkiak (ki)e -ra etxe.  
 'Manuelek berehala etxera aulkiak dakartza'

Aditza izan ezik, osagarri guztiak ken daitezke; horregatik, *kebuluk'am* perpausoa izan daiteke, aipatu ditudan euskarazko adibideetan gertatzen den bezala.

Analisi honek aditz morfema pertsonalak benetako argumentuak direla adierazten du, Jelinek-ek (1984) proposatu duenez. Elordietaren hitzetan:

Jelinek claims that in non-configurational languages, where null pronominals are plentiful, the pronominal clitics which appear attached to the verb are the true arguments of the verb. She claims that the the clitic pronouns are assigned grammatical Case, which reflects their grammatical function, as opposed to lexical DPs, which she argues are optional adjuncts. (Elordieta 2001: 125)

Jelinek-en ustez, pertsona gramatikalak adierazten dituzten adizkiak dauzkaten hizkuntzei aplika diezaiekegu analisi hau. Hizkuntza hauetan, aditzaren hizki pertsonalak argumentuak dira eta aditzekin batera ager daitezkeen izenak edo izenordeak hautazko adjuntuak dira. Puntu hau argitzeko Jelinek-ek gaztelerazko esaldi batzuk ematen dizkigu: (*yo*) *sé lo que pasó, me lo dio (a mí)* eta *llueve* (Jelinek 1984: 48-49), eta honela dio:

If we assume that nominal adjunction is present in Spanish, rather than 'pro-drop', there is no motivation for postulating a 'pleonastic' PRO or *pro* (non-referential, non-phonological) subject in \**El llueve* [emphatic]. There is a phonological subject in *llueve*; the verbal suffix is a third person singular subject. But since this subject is non-referential and emphatic referential contrast cannot be adjoined. (Jelinek 1984: 49)

Proposamen hau euskarazko perpauso egitura deskribatzeko erabil daiteke. Aurretik aipatu dugun euskal esaldiak honela azter daitezke, Brettschneider-en proposamenari jarraiki:

- (5) Euskera  
(Manuelek<sub>j</sub>) etxera (aulkiak<sub>i</sub>) (Mireni<sub>k</sub>) dakar<sub>i</sub>zio<sub>k</sub>-Ø<sub>j</sub>

Gazteleraz bezala (*se las lleva a casa*), *etxera dakar<sub>i</sub>zio* esaldi osotzat har daiteke euskaraz ere. Aurreko esaldiaren gainerako izenak hautazkoak dira, eta adierazitako gertaeraren xehetasunak emateko erabiltzen dira.

Elordietaren (2001: 125) ustez, analisi hau ezin dugu erabili euskal perpausoa aztertzeko, IS-argumentalak ez baitira benetako adjuntuak. Autore honek arrazoi duela uste dut. Izenak eta izenordeak hautazkoak dira gazteleraz eta euskaraz, benetako adjuntuak bailiran, baina ezaugarri bereizgarri bat dute: indizekidetasuna:

Es evidente que esa relación de adyacencia es diferente de la que se da entre un adverbio propiamente dicho y un sintagma u oración. La principal diferencia es la existencia de una relación de coreferencia. En efecto, suponemos que es la flexión personal deíctica del verbo lo que constituye el argumento principal de un verbo transitivo y lo que contrae, por tanto, la relación sintáctica de sujeto y semántica de agente. Pero además, es claro que en, por ejemplo, *Juan duerme* el nombre propio *Juan* tiene carácter referencial y que esa referencia es la misma en esa oración que la que tiene esa deíxis verbal flexiva de persona. Es decir, hay coreferencia entre el sintagma nominal adyacente y el argumento propio del verbo implicado. Esta coreferencia es lo que distingue un adyacente relacionado con un argumento de un adyacente no relacionado con un argumento. (Moreno Cabrera 2003: 261)

Izan ere, argumentuak adierazten dituzten izenek eta izenordeek indize erreferentzialak partekatzen dituzte adizkiekin. Horregatik, kategoria berri bati ezarri behar dizkiogu izenorde eta izen hauek; *adjuntu argumentala* dei diezaiokegu. Kategoria hau Alarcos-ek proposatu zuen bere gazteleraren gramatikan (Alarcos 1994: 73, 137, 139, 199, 256-257 eta 266).

Analisi honetan, ez dago komunztadurarik adizkiaren eta izenaren artean; hautzakoak direnez gero, izenek eta izenordeek ez diote beren ezaugarri morfologikorik ezartzen aditzari. Aitzitik, aditzaren (edo aditz sintagmaren) hizki erreferentziales murrizketa semantikoak ezartzen dizkiete aditzarekin ager daitezkeen izenei eta izenordeei. Adibidez, *hitz egiten du* aditz sintagma *Jonek* onartzen du, baina *euria egiten du*-k ez du honelakorik onartzen.

### 3. Aditz komunztadura eta argumentuak euskaraz, gramatika sortzaile klasikoaren ikuspuntutik

Patxi Goenagak (1980: 168-170) komunztaduraren lehen analisia eskaintzen zigun euskal gramatika sortzailearen arloan. Analisi horretan, perpausean gune argumentaletan agertzen diren izen edo izenordeek beren ezaugarri morfologikoak ezartzen dizkiete aditzari. Hau transformazio erregela baten bidez egiten da, honela formula daitekeena (ikus Goenaga 1980: 170 eta Goenaga 1991b: 282):

- (6) Komunztadura erregela  

$$X - ([+erg, \varphi_1]) - Y - ([+dat, \varphi_2]) - [+abs, \varphi_3] - Z - \text{perts} \Rightarrow$$

$$X - ([+erg, \varphi_1]) - Y - ([+dat, \varphi_2]) - [+abs, \varphi_3] - Z - [_{\text{perts}} [+erg, \varphi_1],$$

$$[+dat, \varphi_2], [+abs, \varphi_3] ]$$

$$\varphi = \alpha 1. \text{ perts.}, \beta 2. \text{ perts.}, \gamma \text{ plur}$$

Gramatika sortzailearen geroko garapenetan, aditz komunztadurak zeregin einkorragoa betetzen du. *Hatsarre eta Parametroak* teorian euskal aditz komunztadurak kategoria isilak zilegitzen ditu; adibidez, *miesten zaitut* perpausean (Elordieta 2001: 115) bi izenorde isil agertzen dira, eta *eman dizkizut* perpausean (Ortiz de Urbina 1989: 162-163) hiru:

- (7) Euskara  
 a.  $[pro_j] [pro_i] \text{ miesten } z_{i,t_j}$       b.  $[pro_k] [pro_j] [pro_i] \text{ eman } diz_{i,k} z_{j,t_k}$

Analisi honetan, aditz laguntzaileak kasu, pertsona eta numero ezaugarriak ditu eta haren bidez izenorde isilek dagozkien ezaugarriak bereganatzen dituzte.

### 4. Adizki alokutiboak gramatika sortzailean

Euskal aditzean solaskidearen erreferentzia ager daiteke zuka edo hika hizkeran (ikus, besteak beste. Lafon 1959, Alberdi 1986, Irigoien 1993, Rebuschi 1981, 1984). Esate baterako, *Jon etorri duk* eta *Jon etorri duzu* kasuetan bi erreferentzia pertsonal agertzen dira aditz laguntzailean: Joni dagokiona, *d-* aurrizkiaren bidez adierazia (honi buruz ikus Laka 1993: 45-52) eta *hi* (gizonezkoa)ri dagokiona, *-k* atzizkiaren bidez adierazia.

Forma alokutiboak lortzeko *nor* eta *nor-nork* ereduak *nor-nork* eta *nor-nori-nork* bihurtzen dira hurrenez hurren. Honela, eman ditudan adibideetan *etorri duk etorri da* formatik eratortzen da, eta *eman dut* formatik *eman diat* (gizonezko hika edo toka esamoldean), *eman dinat* (emakumezko hika edo noka esamoldean), eman *dizut* (zuka esamoldean) eratortzen ditugu; *diat*, *dinat* eta *dizut* aditz laguntzaileek hiru erreferentzia pertsonal dituzte, *nor-nori-nork* aditzak baitira.

*Nor-nori-nork* aditzei dagokienez, laugarren erreferentzia pertsonal bat eransten zaie adizki alokutiboa lortzeko. Adibidez, *eman diot* formatik *eman zioat* (gizonezkoa), *eman zionat* (emakumezkoa) eta *eman ziozut* (zuka hizkeran) lortzen ditugu. Adizki hauek lau erreferentzia pertsonal dituzte.

Adizki alokutiboek hainbat arazo korapilatsu sortzen dizkiete teoria gramatikalei, alokutiboaren erreferentzia ez baita argumentala. Hizki alokutiboek denotatutako entitateek ez dute parte hartzen esaldiak adierazitako gertakizunetan. Horregatik, aditzek ez diete kasu markarik ez rol semantikorik ezartzen.

Goenagak ez zuen aztertu adizki alokutiborik bere *Gramatika bideetan* liburuan, baina zenbait autoreren ustez, garai hartan alokutibotasunaren analisisa komunztaduraren deskribapenean kokatu behar da gramatika sortzailean. T. H. Wilburek komunztadura alokutiboaren analisi bi proposatu zituen bere euskal gramatikari buruzko liburuan (Wilbur 1979: 127-130). Lehenengo analisisan, egitura sakonean adizki alokutiboa dakarren perpausa mendekoa da eta perpaus nagusiak *hi* izenordea eta *erraiten* aditza ditu. Adibidez (Wilbur 1979: 27), *holako zubi azpian jakin diat, nola hatxemanen nintuen ene mandoak* perpausak honako egitura sakon dauka:

(8) Euskara

[<sub>S</sub>nik hiri [<sub>S</sub>nik nola hatxeman nintuen ene mandoak]<sub>S</sub> jakin [<sub>aux</sub>] erraiten [<sub>aux</sub>]]<sub>S</sub>

Perpaus nagusia kendu baino lehen, *hi* izenordea mendeko perpausari eransten zaio eta izenorde honek bere ezaugarri morfologikoak ezartzen dizkio mendeko perpausako aditzari. Honen ondorioz, adizkia alokutibo bihurtzen da.

Bigarren analisisan, egitura sakonean *hi* izenordea adjuntu baten itxura hartuta agertzen da:

(9) Euskara

[hi, [<sub>S</sub>nik nola hatxeman nintuen ene mandoak]<sub>S</sub> jakin [<sub>aux</sub>]]

Wilburen ustez, arazo handia dago bi analisisetan. *Hi* izenordeak ez du genero ezaugarriarik; horregatik, ezin da *diat* eta *dinat* arteko aldea atzeman proposatutako erregelaren bidez. Wilburek proposatzen du *hi* izenordearen alboan izen bat agertzen dela, bokatibo gisa. Adibidez, *hi*, *gizon*; *hi*, *Martin* edo *hi*, *emazte*; *hi*, *Emilia*.

Oyharçabalek beste analisi bat eskaini digu alokutibotasunari buruz. Komunztadura alokutiboa azaltzeko, autore honek beste kategoria isil bat proposatzen du: *e<sub>ALLO</sub>*; Oyharçabalen ustez kategoria hau ez da izenorde isila.

Eskuarki, izenorde isilaren lekuan izenorde arrunta ager daiteke. Elordietak (2001: 115) eskaintzen digu hurrengo adibidea:

(10) Euskara

a. [<sub>pro<sub>i</sub></sub>] [<sub>pro<sub>j</sub></sub>] miresten z<sub>i</sub>aitut,                      b. Nik zu miresten zaitut

Baina *Hi* izenordea ezin da azaldu argumentu gisa adizki alokutiboekin batera: “On ne peut ajouter aucune forme casuelle de *hi á dik*. On ne le peut pas davantage à *ziok* « il le lui a » (forme allocutive).” (Lafon 1959: 106). Oyharçabalek adibide bat ematen digu:

- (11) Euskara  
\*Hi mintza niaitekek

Arrazoi honengatik esaten du autore honek  $e_{ALLO}$  kategoria isil alokutiboa ez dagoela gune argumentalean. Kategoria hau perpaus-egituran adjuntu gisa agertzen den operatzailea da. Gainera, analisi honek egiaztatzen du kasu ezarketa eta aditz komunztadura ez daudela beti elkarlotuta. Oyharçabalen ustez, alokutibotasunak erakusten du aditz komunztadura ezin dela perpausen erlazio sintaktikoen adierazpen soila izana:

The allocutive phenomenon, at first glance, seems to represent some language specific stylistic and/or discursive rule performed outside of syntax. But in fact it shows that nonargumental positions existing at the periphery of L-related projections allow to syntactically encode linguistic relations not linked to the selectional properties of lexical and functional projections.

[...] Basque allocutive marking [...] shows that agreement phenomena cannot be restricted to Case assignment and argument position status. (Oyharçabal 1993: 111)

Beraz, alokutibotasuna deskribatzeak eta aztertzeak, dudarik gabe, ondorio garrantzitsuak dakarzkie teoria gramatikalari eta hizkuntzalaritza orokorrari.

## 5. Alokutibotasuna eta boz gramatikala

Hizki alokutiboak hartzean, *nor* adizkiak *nor nork* bihurtzen dira eta *nor-nork* adizkiak *nor-nori-nork* bilakatzen dira (Zubiri 2000: 591). Adibidez:

- (12) Adizki alokutiboak  
a. Etorri naiz ⇒ Etorri naun (alokutiboa)  
b. (Hik) (ni) ikusi naun (ez alokutiboa)  
c. Eman du ⇒ Eman dinat (alokutiboa)  
d. (Nik) (hiri) eman dinat (ez alokutiboa)

*Nor-nor-nork* formei dagokienez, *nor-nori-nork* forma berriak sortzen dira, lau-garren hizki pertsonala daukatenak: *nor-nori-nori-nork*:

- (13) Euskara  
Eman diot ⇒ Eman zionat (alokutiboa)

Prozesu morfologiko hau aditz erazleak sortzeko erabiltzen da. Txillardegik dioenez, aditz arazleen ereduak “garrantzi handia du ADITZ ETIKOA-ren funtsa ulertzeko” (Txillardegik 1978: 377). Esaldi kausatiboak lortzeko, *Nor* adizkiak *nor-nork* bihurtzen da eta *nor-nork* adizkiak *nor-nori-nork* bilakatzen dira:

- (14) Euskara  
a. Etorri da ⇒ etorrarazi du                      b. Ekarrri du ⇒ ekarrarazi dio

Txillardegiren aholkuari jarraiki, oso interesgarria izango litzateke *nor-nori-nork* adizkiak nola bihurtzen diren aditz arazle aztertzea. Kasu honetan, esaldian *nori* izen bi daude, baina adizkiak *nori*-hizki bakarra du. Ortiz de Urbinak dioenez:

Where the basic verb is ditransitive, causativization is usually possible: the causee is then marked dative, so that a dative doubling situation may arise. However, only the causee dative may be marked on the inflection. In fact, quite often, it is the verbal inflection alone that identifies the causee. (Ortiz de Urbina 2000: 608)

Adibidez, Ortiz de Urbinak (2000: 608) ondoko esaldi hauek eskaintzen dizkigu:

(15) Euskara

- a. Salgai nuen landa Mikeli salerazi didate gurasoek (niri)
- b. Elizak pobreei dirua emanerazten digu (guri)

Lehenengo esaldian *didate* adizkiak ez dauka *Mikeli* dagokion hizki pertsonalik. *Diote* adizkia erabiltzen badugu perpaus honetan, Mikel izango da landa saldu duena eta ez ni saldu diodana. Bigarrenean, *digu* adizkian ez dago *pobreei* determinatzaile sintagmaren markarik. *Die* adizkia agertuko balitz esaldi honetan, pobreak izango lirateke dirua ematen dutenak.

Hortaz, esaldi alokutiboetan, lehenago ikusi dugunez, ezin da agertu adizkiak alokutiboki aipatutako bigarren pertsonaren izenorderik; aitzitik, esaldi kausati-boetan *nor-nori-nork* adizkiek ezin dute esaldian agertzen den bigarren *nori* izena adierazi. Egoera hau argitzeko, oso garrantzitsua da kontuan hartzea diatesi eta boz gramatikalaren arteko desberdintasuna.

Eskuarki, boz gramatikala eta diatesia sinonimotzat jotzen dira:

Boza aditzari eta honen laguntzaileari dagokien gramatika kategoria bat da, eta aditzaren, subjektu edo agente eta objektuaren arteko gramatika-erlazioa adierazten du; boz bakoitzak aditz-flexio espezifikokoak ditu [...] (Sin. Diatesia). (Txillardegi & Toledo 1991: 64)

Aditzek rol sematikoa ezartzen diete gunee argumental guztiei. Ezarketa honi *sare diatetikoa* dei diezaiokegu. Adibidez, *eman* aditzak honako sare diatetiko hau dauka:

- (16) *Eman* aditzaren sare diatetikoa  
NORK/egilea; NOR/ jasalea; NORI/jasotzailea

Boza diatesiaren adierazpen morfologikoa da. Honela, *eman* aditzak ezartzen duen sare diatetikoa *ukan* adizkien bidez adierazten da:

- (17) Euskara  
Patxiri liburua eman diot

Oso erraza da diatesi eta boz gramatikalaren arteko desberdintasuna ulertzea, zeren eta diatesia fenomeno sintaktikoa baita eta boz fenomeno morfologikoa. Puntu hau hurrengo definizioetan ikus daiteke:

- (18) Diatesiaren definizioa

Aditzek argumentuei haien erlazio sintaktikoen arabera ezartzen dizkieten rol semantikoen banaketa.

- (19) Boz gramatikalaren definizioa  
Aditzaren bidezko diatesi adierazpen morfologikoa.

Nahiz eta euskaraz boz gramatikalak ia beti diatesia adierazten duen, badaude kasuak boza eta diatesia elkarren menpekoak ez direla erakusten dutenak.

Aurrena aipatu ditudan *nor-nori-nork* formatik eratorritako aditz arazleek erakusten dute boza eta diatesia beregainak direla. Ikusi dugunez, nahiz eta *salgai nuen landa Mikeli salerazi didate gurasoek (niri)* perpausak lau rol semantikorekiko diatesia eduki, perpausean ageri den adizkiaren (*salerazi didate*) boz gramatikalak hiru erreferentzia pertsonal ditu.

Adizki alokutiboei dagokienez, kontrako egoerarekin egiten dugu topo. Adizki alokutiboek lau erreferentzia pertsonal izan ditzakete, baina solaskidea adierazten duen bigarren pertsonaren izenordea ezin da perpausean agertu:

- (20) Euskara  
(Nik) (\*hi/\*hik/\*hiri) (hau) eman zionat (alokutiboa)

Hortaz, adizki alokutiboek erakusten dute diatesia eta boz gramatikala ez direla elkarren menpekoak. Moreno Cabrerak dioenez:

What is important here is that in order to refer to the addressee of speech, a transitive auxiliary has been chosen. Therefore, the *da/duk* variation is a case of voice variation without a corresponding diathetical variation, since as we have seen *etorri da* and *etorri duk/n* have exactly the same diathetical structures. (Moreno Cabrera 1998: 175)


Moreno Cabreraren ondorio nagusia hauxe da:

This shows that the morphological mechanism of voice in Basque is autonomous and can be employed even when no diathetical change has taken place. (Moreno Cabrera 1998: 177)

Ikusi dugun bezala, alokutibotasunari buruzko ikerketek hizkuntzalaritza teorikorako ondorio garrantzitsuak eskaini diezazkigukete.

## 6. Adizki alokutiboak bakarriketan

Alokutibotasuna ondo ulertzeko, arretaz aztertu behar dugu hizketaren zirkuitua, zeinean protagonista bi aurki baitezakegu: mezuaren bidaltzailea edo igorlea, eta hartzailea edo jasotzailea.



Saussure-ren hizketaren zirkuitua



Guztiarekin ere, eskema hau ongi ulertzeko oso garrantzitsua da konturatzea desberdintasun bat dagoela destinatzailearen eta bidaltzailearen artean alde batetik eta, bestetik, destinatariaren eta hartzailearen artean. Bidaltzailea mezua igortzen duena da, eta hartzailea mezua jasotzen duena. Aldiz, destinatzailea mezua egiten duena da; gainera, destinatzaileak mezua zuzentzen dio destinatariari. Kasu askotan, destinatzailea eta bidaltzailea pertsona desberdinak izan daitezke; adibidez, interpretaria bidaltzailea da, baina ez da destinatzailea; horrez gain, kalean norbaitekin oihuka hitz egiten ari garenean, hartzaile asko izan arren, destinatari bakarra dago. Gainera, bidaltzailea bere mezuaren hartzailea izan ohi da.

Nire ustez, adizki alokutiboek destinataria aipatzen dute eta ez hartzailea. Horrez gainera, ikusi dugun bezala, alokutibotasuna ez da erreferentzia pertsonala, aipamen pragmatikoa baizik. Honela, hobeto uler ditzakegu bakarrizketan agertzen diren forma alokutiboak.

Alberdik dioenez, “bakarrizketan aditz-joko alokutiboa erabiltzeko joera dago” (Alberdi 1986: 426). Autore honen ustez, fenomeno hau harrigarria eta bitxia da:

Euskaraz, hizkuntza gehienetan bezala, bakarrizketan nork bere bururari ‘Hi’ egitea maiz gertatzen da. Baina harrigarriena eta aldi berean bereizgarriena, bakarrizketan aditz-joko alokutiboa sartzeko ohitura dugu. Nork bere burua esan diezaioke:

(a) tontoa naiz! (b) tontoa haiz! (d) tontoa nauk! (Alberdi 1986: 427)

Fenomeno hau argitzeko, Rebuschik (1984: 607) *alter ego*-ri buruz hitz egiten du eta Alberdik esaten du ez dagoela benetako bakarrizketarik, fikziozko elkarrizketa baizik. Alberdiren hitzetan:

Posibilitateok esplikatzeko pentsatu behar dugu eza dagoela benetako bakarrizketa-rik, nolabaiteko elkarrizketa bat baizik: halako alegiazko edo fikziozko elkarrizketa bar. Batzuetan fikziozko hizketa-laguna edozein «mugatu gabea» izan daiteke (a), beste batzuetan norbera «bitan banatzen da», behin hizketa-lagunaren lekua (b), behin hizketa-lagunari hitz egiten dion hiztunaren lekua (d) hartzen duela. (Alberdi 1986: 427)

Bidaltzailea/ destinatzailea eta hartzailea/ destinataria bereizketa egiten badugu, oso erraza izango da Saussure-k proposatu zuen hizketa zirkuituaren bidez egoera hau adieraztea, A eta B gizaki bera direnean. Kasu biak hurrengo irudietan erakutsiko ditut:



«Tontoa nauk» esaten dudanean, fikziozko solaskidea pragmatikoki aipatzen dut, eta «tontoa haiz» diodanean, ordea, solaskidearen (nire buruaren) aipamena egiten dut bigarren pertsonaren bidez. Lehenengo kasuan, fikziozko solaskidea destinataria izan daiteke, baina ezin daiteke hartzailea edo jasotzailea izan. Bigarrenean, fikziozko solaskidea destinatzailea izan daiteke, baina ezin da bidaltzailea edo igorlea izan. Nire analisia ondoko taula hauetan erakusten da.

## (21) TONTOA NAIZ

	Destinatzailea	Bidaltzailea	Destinataria	Hartzailea
NI	BAI	BAI	EZ	BAI
<i>ALTER EGO</i>	EZ	EZ	EZ	EZ

## (22) TONTOA HAIZ

	Destinatzailea	Bidaltzailea	Destinataria	Hartzailea
NI	EZ	BAI	BAI	BAI
<i>ALTER EGO</i>	BAI	EZ	EZ	EZ

## (23) TONTOA NAUK

	Destinatzailea	Bidaltzailea	Destinataria	Hartzailea
NI	BAI	BAI	EZ	BAI
<i>ALTER EGO</i>	EZ	EZ	BAI	EZ

## 7. Ondorioak

Artikulu honetan frogatu dut alokutibotasuna kontuan hartu behar dugula eus-kara tipologikoki karakterizatzeko. Ikusi dugun bezala, fenomeno honek oso ondorio interesgarriak dakartzkio teoria gramatikalari ez ezik, hizkuntzalaritza orokorrari ere.

Adizki alokutiboen eta aditz komunztaduraren arteko erlazioak oso arazo korapilatsuak eragiten dizkio teoria gramatikalari. Adizki alokutiboak gramatika sortzailean azaltzeko, Oyharçabalek erakusten digunez, suposatu behar dugu kasu ezarketa eta aditz komunztadura ez daudela beti elkarrekin lotuta. Ondorio hau oso garrantzitsua da teoria linguistiko orokorarentzat.

Alokutibotasuna ikertzeak oso emaitza interesgarriak eskaintzen ditu boz gramatikala aztertzerakoan. Adizki alokutiboek erakusten dute diatesia eta boz gramatikala desberdinu behar direla. Adizki hauek frogatzen dute diatesia aldatu gabe ere alda daitekeela boz gramatikala. Honen ondorioz, diatesia eta boza ez daude beti elkarrekin lotuta, gauza ezberdinak baitira. Ondorio hau, dudarik gabe, oso garrantzitsua da teoria gramatikalarentzat ez ezik, hizkuntzalaritza orokorarentzat ere.

Emaitza hauek bateragarriagoak dira hizkuntzaren maila guztiak (fonologia, morfologia, sintaxia eta semantika) sortzailatzat jotzen dituzten eredu linguistikoekin

gramatika sortzaile klasikoarekin baino. Adibidez, Jackendoff-en eredu linguistikoan maila guztiak sortzaileak dira; autore honek dioenez:

Each of the major components of linguistic structure —phonology, syntax, and semantic/conceptual structure— is the product of an independent generative system, and each is further subdivided into independent tiers. (Jackendoff 2002: 424)

Azkenik, bakarriketan agertzen diren adizki alokutiboak aztertu ditut. Erabilera harrigarri hau argitzeko destinataile / bidaltzailearen eta destinatari / hartzailearen arteko desberdintasuna baliatu dut, Saussure-ren hizketaren zirkuitua kontuan hartuz.

### Bibliografia

- Alarcos, M., 1994, *Gramática de la lengua española*, Espasa Calpe, Madrid.
- Alberdi, J., 1986, "Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko Kasua", *ASJU* 20: 2, 419-486.
- , 1995, "The development of the Basque System of Terms of Address and the Allocutive Conjugation", in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (eds.), *Towards a History of the Basque Language*, John Benjamins, Amsterdam, 275-294.
- Brettschneider, G., 1979, "Typological Characteristics of Basque", in F. Plank (ed.), *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, New York, 371-384.
- , 1981, "Euskara, hizkuntzen tipologia, ta hizkuntza unibertsalak", in *Euskaltzaindia*, 221-239.
- Eguzkitza, A. & M. Etxebarria, 2004 *Hizkuntzalaritza Orokorra: Arazoak eta Ikuspegiak*, EHU, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Elordieta, A., 2001 "The role of verbal agreement in licensing null arguments", in Fernández & Albizu (arg.), 113-132.
- Euskaltzaindia, 1981, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Bilbo.
- , 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*, Bilbo.
- , 1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V*, Bilbo.
- Fernández, B. & P. Albizu (arg.), 2001, *Kasu eta komunztaduraren gainean*, EHU, Gasteiz.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika Bideetan*, Erein, Donostia.
- , 1991a, "Morfosintaxia", in Txillardegi & Toledo, (arg.), 328-338.
- , 1991b "Komunztadura", in Txillardegi & Toledo, (arg.), 282.
- Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina (arg.), 1993, *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam.
- & — (arg.), 2000, *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Irigoién, A., 1993, "Hitanoaz", in A. Irigoien, *Opera Selecta*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo 1997, 209-296.
- Jackendoff, R., 2002, *Foundations of Language. Brain, Meaning, Grammar, Evolution*, Oxford U. P., Oxford.
- Jelinek, E., 1984, "Empty categories, Case and Configurationality", *NLLT* 2: 1, 39-77.
- Lafitte, P., 1978, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Elkar, Donostia.
- Lafon, R., 1959, "Place de la 2<sup>e</sup> personne du singulier dans la conjugaison basque", *BLS* 54: 103-129. Berrarg. bere *Vasconiana*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999, 387-409.
- Laka, I., 1993, "The structure of inflection: A case study in X<sup>0</sup> syntax", in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 21-70.

- Moreno Cabrera, J. C., 1998, "Allocutivity and voice in the Basque verb", in L. Kulikov & H. Vater (arg.) *Typology of Verbal Categories. Papers presented to Vladimir Nedjalkov on the occasion of his 70th birthday*, Max Niemeyer, Tübingen, 169-178.
- , 2003, *Semántica y Gramática. Sucesos, Papeles Semánticos y Relaciones Sintácticas*, Antonio Machado, Madrid.
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. asimilazioa eta hots simbolismoa*, EHU, Zarautz.
- Ortiz de Urbina, J., 1985, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- , 2000, "Causatives", Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 597-613.
- Oyharçabal, B., 1993, "Verb agreement with Non-arguments: On allocutive agreement", in Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 89-114.
- Rebuschi, G., 1981, "Autour des formes allocutives du basque", in *Euskaltzaindia 1981*, 307-321. Berrarg. bere *Essais de Linguistique basque*, ASJUren Gehigarriak 35, Donostia, 125-138.
- , 1984, "Les formes allocutives du basque", in id., *Structure de l'énoncé en basque*, Selaf, Paris, 481- 634.
- , 1997, "Autour des formes allocutives du basque", in id., *Essais de linguistique basque*, ASJU-ren Gehigarriak 35, Donostia, 125-138.
- Txillardegui, 1978, *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia.
- , & A. M. Toledo, 1991, *Hizkuntzalaritza*, UZEI/ ELKAR, Donostia.
- Wilbur, T. H., 1979, *Prolegomena to a Grammar of Basque*, J. Benjamins, Amsterdam.
- Zubiri, I. eta E., 2000, *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbo.